


INGURUMENA

Arazuriko HUAN araztegiko lohiakin egiten den birziklapena 1990ean hasi zen. Urtez urte, instalaziotik nekazaritzan erabiltzeko helburuarekin ateratzen den lohi tona bakoitza erregistratzen da, eta bai xede diren lursail guztiak, aplikatzen diren lohi dosiak, lursailaren jabea eta abar.


2023ari dagozkion datu orokorrak hauek dira:

- 41.079 tona lohi digeritu sortu dira.


- 29.095 tona, % 71 nekazaritzan erabili dira (laboreetan, artoan eta ekiloreetan, nagusiki).
- 11.984 tona, % 29 konposta egiteko erabili dira (lohiaren tratamendu aurreratuak), hondakin berdeen 7.176 tonarekin batera (tona horietatik 159,38 tona Gongorara doan errefusa dira).



Nekazaritza helmugak 2022



HUAN jasotzen diren inausite-hondakinek bi jatorri dituzte: etxebizitzak eta udalak. Jarraian, Arazuriko HUAN jasotzen diren inausite-hondakinek 2010-2023 aldian urtez urte izan duten bilakaera erakusten da:



- **4.218 tona konpost** merkaturatu dira. Haietatik 2.817 tona Arazuriko konpostari dagozkio, 483 tona konpost begetalari eta 103 tona nekazaritzarako Arazuriko konpostari. Gainera, 935 tona sustapeneko konpost moduan atera dira. Txikizkako salmentan 26.661 zaku saldu dira. Oso kopuru handia da eta aurreko urtean baino gehiago, pandemiaren ondorioz, produktu zakuratua saltzea bultzatu baitzen.

Araztegiko lohiak hondakin berdeekin batera konpost bihurtzea konpostajerako tunelen plantan egiten da. Planta modernoa da, ingurumenerako kalterik ez duena, eta kalitate handiko konposta lortzen da. Planta horretan, hain zuzen, **Arazuriko konposta** egiten da (**B klasea**).

2014az geroztik, gainera, **konpost begetala (A klasea)** ere egiten da, bezeroen eskaerei erantzun nahian. A klasearen ezaugarriak ditu. 2014an inskribatu zen Ongarrien Erregistroan, eta egun arrakasta handiz merkaturatzen da, lorezaintzan eta baratzezaintzako mota guztietako laboreetan erabiltzeko ezaugarri ezin hobeak baititu.

2023an, araztegiko **lohia eguzki bidez lehertzeko planta pilotuak** lanean jarraitu du. Zentrifugoetatik itendako 2.769 tona lohi lehortu zituen (hezetasunaren % 83ekin). Lohia 20 sailetan lehortu zen. Pisua batez beste % 41 murriztea lortu da, eta irteera-hezetasuna, batez beste, % 61ekoa izatea lortu da.

Lohi lehortuaren sail guztien azken helburua konposta egitea izan da. Horrez gain, egiaztatu da % 45etik gorako gai lehorra duten lohiak ez direla gauza tratamenduaren baldintza onak lortzeko, hezetasun-ezaren ondorioz.

Lohia eta konposta aplikatzeak ingurumenean duen eraginari segimendua egitea:

Duela 30 urtetik hona ohikoa den moduan, lohia aplikatzearen gaineko saioak edo probak egiten ditugu Instituto Técnico de Gestión Agrícola, SA (ITGA, orain INTIASA) Nafarroako Gobernuaren sozietate publikoarekin batera. Hain zuzen ere, saio horiek Arazuriko lursail esperimentalean eta lohia erabiltzen duten Komunitateko beste toki batzuetan egiten ditugu.

2023an, lehorreko laborantzan (laboreak) araztegiko lohia erabiltzeko saiakuntzak egiten jarraitu dugu, Arazuriko finka esperimentalean. Arazuriko konposta erabiltzen hasi gara "Lur landuen erantzun agronomikoa" saiakuntzan, konposta hiru urtean behin aplikatuta lur landuak duen erantzuna ebaluatzeko.

Esperientziaren emaitzek berretsi egiten dute eragin minimoa lurzoruetan metal astunen edukien gainean, Arazurin sortutako lohien ekarpenen dosi eta maiztasun desberdinetarako.

2023an, lohia sail ureztatueta, artoaren laborantza estentsiboan (Erriberri) erabiltzeko saiakuntzak egin dira. Asmoa da nitrogenoan exigentea den labore baten jokaera aztertzea, lohi-aplikazioekin, dosi txikiekin, nitratoengatik kalteberak diren tokietan.